



Espediente zk./Nº Expediente: 2018SZUZ0011 Erreg. data/Fecha Reg: IDAZKARIA / LA SECRETARIA
Erreg. zk. / Nº Registro: 000000
Gaia/Asunto: 2018-ORERETA IKASTOLA DIRULAGUNTZA ZUZENA - HITZARMENA
Eskatzailea/Solicitante: ORERETA IKASTOLA KOOP E NAN(IFK)/DNI(NIF): F20974358
Kokalekua/Emplazamiento: AÑABITARTE KALEA SN, (Orereta ikastola)

ZUZENeko DIRU-LAGUNTZA NOMINATIBOA EMATEKO HITZARMENA

Errenteria, 2018ko ekainaren 1ean

BILDU DIRA:

Batetik, Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi, Errenteriako Udaleko Hezkuntza azpisaileko Zinegotzi Delegatu gisa.

Bestetik, Anartz Muxika Andres, zenbakia duena, eta helbidea ondorio hauetarako: Zamalbide auzoa, 14.

PARTE HARTZEN DUTE:

Lehenengoak Errenteriako Udalaren izenean, Tokiko Araubidearen oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legean emandako eskumenez baliaturik / Alkateak 2015eko ekainaren 19an eta 2016ko otsailaren 19an, 601 eta 170 zenbakiko Dekretu bidez emaniko eskuordetzaren ondorioz jasotako eskumenak baliatuta.

Bigarrenak Orereta Ikastola Koop. E.-ren izen eta ordezkartzan, IFZ F20974358 zenbakia duena, eta helbidea: Zamalbide auzoa, 14.

Bi aldeek elkarri nahiko gaitasuna aitortzen diote hitzarmen hau sinatzeko, eta horretarako

AZALTZEN DUTE:

I- Eskolaz kanpoko jarduerak edozein ikastetxeren eskaintzan derrigorrezkoak dira.

II- Horrela, jarduera horiek Orereta Ikastolako ikasleriari egiten dieten onuraz gainera, herriko kultur eta aisialdirako eskaintza hobetzen laguntzen dute.

III- Orereta Ikastola Koop. E.-k, besteak beste, eskolaz kanpoko jarduera hauek antolatu ditu 2017/2018 ikasturtean zehar:

- Ikastolaren eguna ospakizuna.
- Urtekaria
- Iñude eta Artzaiak
- Zubiak eraikiz



- Atlantikaldia

2018ko maiatzaren 30eko Hezkuntza azpisaileko Zinegotzi Ordezkairearen Dekretu bidez, erabaki da Ikastola Orereta Koop. E-ri zuzeneko diru-laguntza nominatiboa ematea. Horretarako oinarritzat hartu da honako arauetan ezarritakoa:

- Errenteriako udalean diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantzaren 11.1.a) artikulua (2015eko abuztuaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala -150 zk.-) -aurrerantzean, Ordenantza-

- Azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorren 22.2.a) art. -aurrerantzean, Legea-

Azaldutakoaren arabera Errenteriako Udalak eta Orereta Ikastola Koop. E.-ek erabaki dute hitzarmen hau sinatzea. Hitzarmena ondorengo klausulei jarraiki arautuko da, bertan jasotzen baitira aldeen konpromisoak diru-laguntza ematea burutu dadin.

KLAUSULAK:

Lehengoa: Hitzarmenaren xedea

Hitzarmen honen xedea da aldeen eskubide eta betebeharrak finkatzea, 2018ko maiatzaren 30eko dekretuaren bidez emaniko diru-laguntzarekiko. Diru-laguntza horren xedea da 2017/2018 ikasturteko eskolaz kanpoko jarduerak finantzatzea.

Bigarrena: Aurrekontua eta finantzazioa

Diru-laguntzaren gehieneko diru-kopurua 20.000,00 eurokoa izango da, aurrekontuko 1.0630.471.01.326.20 diru-laguntza: Orereta Ikastola partidaren kontura. Partida hori izenduna izatea aurrekusi da Errenteriako Udalaren Aurrekontua Orokorrean 2018 urterako

Hirugarrena: Hitzarmenaren iraupena

Lankidetzaz hitzarmen hau indarrean sartuko da sinatzen den egunean eta 2018ko abenduan amaituko da.

Laugarrena: Errenteriako Udalaren konpromisoak.

Hitzarmen honi jarraiki Errenteriako Udalak harturiko konpromisoak hauek dira:

a) 20.000,00 euroko diru-laguntza ordainduko da, eta era honetan:

% 80: 16.000,00 euro, hilabeteko epean hitzarmena sinatzen denetik.

% 20: 4.000,00 euro, proiektua gauzatu eta horren justifikazioa aurkeztu ondoren.

Bosgarrena: Diru-laguntzaren entitate/pertsona onuradunak harturiko konpromisoak.

Hitzarmen honi jarraiki diru-laguntzaren onuradunak harturiko konpromisoak hauek dira:

a) 2017/2018 ikasturteko eskolaz kanpoko jarduerak proiektua garatuko du, aurkezturiko dokumentazioaren arabera. Proiektua hitzarmen honekin batera doa eranskin gisa, eta aurrikusitako epean gauzatu da.

b) Beharrezko diren udal baimenak edo bestelakoak eskatu beharko ditu.

c) Ordenantzaren 21. artikuluan eta Legearen 14. artikuluan onuradunei ezarritako eginbide guztiak bete beharko ditu, eta batez ere:

- Diru-laguntza eman duen erakundean justifikatu beharko du, betekizunak eta baldintzak beteko dituela, hala



nola jarduera burutu eta diru-laguntza emateak edo izateak zehazten duen helburua beteko duela.

- Eskumeneko erakundeak egin beharreko egiaztatze jarduerak onartuko ditu, eta eskatzen zaion informazioa ekarriko du.
 - Beste diru-laguntza batzuk jasotzen baditu diru-laguntza eman duen erakundeari jakinaraziko dio, hala nola bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo diruz lagunduriko jarduerak finantzatzen dituzten baliabideak. Hori guztia jakinaraziko beharko da jakin bezain laster, eta, hala balegokio, hartu beharreko diru-kopuruak kobratuko direla justifikatu aurretik.
 - Frogatu beharko du (ordainketa bakoitza egin aurretik) egunean dagoela zerga eta gizarte segurantzako betebeharretan.
 - Kontabilitate liburuak izango ditu, tramitaturiko erregistroak eta bestelako dokumentazioa behar bezalako auditoria eginda merkataritzako eta sektoreko legeak eskaturiko baldintzetan. Izan ere, era horretan helburu da egiaztatze eta kontrol eskumenak behar bezala burutuko direla bermatzea.
 - Jasotako diru-kopuruaren aplikazioaren justifikazio dokumentuak gordeko ditu, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatu eta kontrolatu daitezkeen bitartean, hau da lau urteko epean zehar, alegia.
- d) Jasotako diru-kopuruak itzuliko ditu, baldin eta Legearen 37. artikuluan aurreikusiriko egoerak gertatzen badira.
- e) Hizkuntza ofizialen erabileraren alorreko klausulak: Diru-laguntzaren entitate onuradunak diru-laguntza bidez eginiko ekintzen komunikazioetan honako irizpideak errespetatu beharko ditu.

Idatziari dagokionez:

-Hizkuntza paisaia:

Errotuluak, oharrak, iragarkiak, txartelak, publizitatea eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma bidez egingo dira.

Piktograma bidez egin ezin direnean, mezuak ele bitan egingo dira euskarari lehentasuna emanez (testuan lehenago kokatuta, letra handiagoa, beltzean) betiere Udalarekin aldeztu aurretik adostuta.

Diruz lagundutako ekintzan argitaratu eta herritarren eskura jarzen diren eskuorriak, iragarkiak, oharrak eta abar gutxienez bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, euskarari lehentasuna emanda.

- Harremanak Administrazioarekin: diru-laguntza eskatzeko tramitazioan idatzizko eta ahozko harremanak euskaraz egiteko saiakera egiteko eskatuko zaie, betiere kontuan izanda apirilaren 7ko 2/2016 Legeak eta azaroaren 24ko 10/1982 Legeak herritarrei administrazioan eskaerak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea aitortzen dietela.

Ahozkoari dagokionez:

Euskaraz komunikatu nahi duten herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko, herritarrekin egiten diren jardueretan, oro har, eta bereziki haurrekin egiten direnetan aritzen direnek, bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko beharrezko gaitasuna izatea hobetsiko da.

Bozgorailuz egiten diren propaganda, abisuak, publizitatea eta abar bi hizkuntza ofizialetan egingo dira, azken kasu horretan euskarari lehentasuna emanda. Nolanahi ere, ekintzaren izaerak edo hartzaileen izaerak eskatzen duenean euskararen erabilera lehenetsiko da.

Elkarteek antolatutako ekintza konkretuean megafonia bidez emandako mezuek eta musika edo abestiek aurreko baldintza bera bete beharko dute.

Jendaurreko hitzaldi edo antzekorik antolatzen denean eta hizlaria euskalduna ez bada, laguntzaile euskaldun



bat jartzeko eskatuko da, euskaldunen hizkuntza eskubideak errespetatzeko.

f) Berdintasunerako klausula: Diru-laguntzaren entitate onuradunak bete beharko ditu Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 4/2005 Legean, otsailaren 18koa, ezarriko oinarriak eta eginkizunak, emakume eta gizonen egiazko berdintasunerako. Baita 3/2007 Lege Organikoan, martxoaren 22koan, ezarrikoak.

Dokumentazio guztiak, publizitateak, irudiak edo materialek hizkuntza ez sexista erabiliko dute, emakumeak diskriminatzeko edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko dute, eta berdintasun, presentzia orekatu, bestelakotasun, erantzunkidetasun, eta rol era genero-identitate aniztasunerako balioak sustatuko dituzte.

g) Ingurumenaren alorreko klausula: Diru-laguntzaren entitate onuradunak, oro har, ingurumeneko irizpideak hartu beharko ditu ondorengo alorretan: (1) aurrezte eta energia eraginkortasuna, (2) hondakinen frakzio ezberdinen kudeaketa eta bilketa, horiek sortzeari aurrea hartzeaz gain, (3) tokiko aniztasunari kalterik ez sortzea (habitat naturalak, espezieak eta prozesu ekologikoak), (4) baliabide naturalak aurrezte (ura, kontsumo iraunkorra), (5) sorturiko hondakin-uren behar bezalako bilketa, (6) mugikortasun iraunkorra sustatzea, eta (7) indarrean dagoen araudiak ezarritako gehieneko mugaz gaindiko zaratarik ez sortzea eta herritarrekiko eta ingurumenarekiko kalitate akustikoa bermatzea.

Paperezko euskarrian Udaletxean aurkeztu beharreko dokumentazioari dagokionez, % 100ean birziklaturiko papera izango da, batere klororik gabekoa, eta bi aldeetatik inprimatuta.

h) Jarduera eta erabiliko hedabide guztietan (irradi, prentsa, kartel, eskuko programa, etab.) jasota utzi beharko da proiektua finantzatzeko Errenteriako Udalaren lankidetzara, esaldi honen arabera: "Errenteriako Udalaren laguntzarekin". Esaldi horri Herribilduaren armarrria gehituko zaio, hedabidea idatzia bada. Baldintza hori bete beharko da laguntzaile bakarria Errenteriako Udala denean, hala nola babesaren beste laguntzaile batzuekin banatzen denean. Azken kasu honetan arestiko esaldiaren tamaina gutxienez erabiliko den handienaren adinakoa izango da.

Seigarrena: Diru-laguntzari egin beharreko jarraipena eta justifikazioa.

Errenteriako Udalak, Hezkuntza eta Gazteria saileko teknikariaren bitartez, jarraipena egingo du eta diru-laguntzaren justifikazioa egokia dela egiaztatuko du, eta, era berean, jarduera gauzatu dela eta diru-laguntza eman edo izateko zehazturiko helburua bete dela.

Diru-laguntzaren entitate onuradunak, 2019ko urtarrilaren 31a baino lehen, Udalean aurkeztu beharko du diru-laguntzari xede duen proiektu/jardueren garapenaren memoria bat. Bertan buruturiko jardueren azalpen memoria bat egingo da, izaniko diru-sarreraren eta gastuen balantzea barne, hala nola egindako gastuak justifikatzeko ordain-agirien edo dokumentuen kopia bat.

Gastuak egiaztatuko dira ordain-agirien edo merkataritzako trafiko juridikoan balio frogagarri baliokidea edo administrazio eraginkortasuna duten bestelako dokumentuen bidez.

Jarduerak diru-laguntzaz gain, finantzatu direnean, norberak dituen diru-sarrerekin edo bestelako diru-laguntzekin edo baliabideekin, justifikazioan zenbatekoa egiaztatu beharko da, nondik datorren eta zein den diru-sarrera horien aplikazioa diruz lagunduriko jardueretan.

Diru-laguntza jasotzen duen entitate hartzaileak, memoriaren gain, aurkeztu beharko du CD bat programaren eta jardueren argazkiekin (argazki bakoitzari zein jarduera edo programa dagokion adierazi beharko da), hala nola hedapenerako erabiliriko euskarri guztiak.

Zazpigarrena: Bateragarritasuna beste diru-laguntza publikoekin.

Hitzarmen honek arautzen duen diru-laguntza bateragarria izango da helburu bera duten bestelako diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin, bestelako administrazioetatik edo erakunde publikoetatik edo pribatuetatik datozenak.



Dena den, diru-laguntza hau bateraezina da helburu berarentzat Erreterriako Udaletik eta/edo bertako organismo autonomoetatik datozen bestelako diru-laguntzak edo laguntzak hartzearekin. Era horretan, entitate onuradunak uko egiten dio edozein laguntza edo diru-laguntza motari egokituko ahalko litzaiokeena Udalaren departamentuek edo organismo autonomoek diru-laguntzetarako eginiko deialdien arabera.

Hala guztiz ere, emandako laguntzen zenbatekoa, bakarrean edo batera, inola ere ezingo da izan diru-laguntzaren xedearen balioa baino handiagoa.

Zortzigarrena: Hitzarmenaren baldintzak aldatzea.

Diru-laguntzaren entitate onuradunak Udalean eskatu ahal izango du, diruz lagunduriko jarduera burutzeko epea amaitu aurretik, hitzarmen hau aldatzea ezarriko epeak zabalteko, emaniko zenbatekoa gutxitzeko edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzeko. Aldaketa horiek baimenduko dira zergatia ustekabeko egoeretan gertatzen direnean edo jarduera behar bezala burutzeko beharrezkoak direnean, betiere diru-laguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada edo hirugarrenen eskubideak kaltetzen ez badira.

Udalak hitzarmen hau aldatu ahal izango du, onuradunari jakinaraziz eta diru-kopuruak aplikatu aurretik, hitzarmen hau onartzeko kontuan harturiko baldintzen aldaketak eragozten edo galarazten duenean lortu nahi den interes publikoaren lorpen-maila, eta onuradunari kalterik eragiten ez bazaio.

Bederatzigarrena: Hitzarmena ez betetzea eta diru-laguntza itzultzea.

Diru-laguntzaren entitate onuradunak bete beharreko edozein eginkizun ez betetzeak ekarriko du diru-laguntza berrikustea edo indarrik gabe uztea, eta hala balegokio, emaniko diru-kopurua gutxitzea edo itzultzea. Hori guztia aurreikusita dago Ordenantzaren 23. eta 37. artikuluetan eta Legearen 37. eta hurrengo artikuluetan. Dena den, erantzukizunak eskatu ahal izango zaizkio.

Izaniko ez betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpidea erabiliko da.

Ezingo balitz edo interesik ez balego lan garapena jarraitzeko proiektuaren bideragarritasunari edo izaerari atxikiriko arazoak edo behar bezala justifikaturikoak bestelakoak direla-eta, bi aldeek adostu ahal izango dute hitzarmena bertan behera uztea edo etetea.

Hamargarrena: datu pertsonalak babestea.

Datu pertsonalak tratatuko balira, bi aldeek adosten dute Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 lege Organikoak ezarriko betetzea.

Hamaikagarrena: Lan arriskuen prebentzioa.

Diru-laguntzaren entitate onuradunak, proiektuaren edo diruz lagunduriko jardueretan, indarrean dagoen araudia beteko du lan arriskuak prebenitzeko alorrean, azaroaren 8ko 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa, eta beraz garatzeko araudia.

Hamabigarrena: Araubide Juridikoa.

Hitzarmen honek administrazio izaera du, eta horregatik interpretazioa eta garapena arautuko dira ordenamendu juridiko administratiboak ezarritakoaren arabera.



Hitzarmen honetan jarri gabe geratu diren alderdi guztietan administrazio alorrean indarrean dagoen legeria ezarriko da eta, batik bat, Erreterriako udalean diru-laguntzak ematea arautzeko udal ordenantza, azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean ezarriko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan, non bertan onartzen den azaroaren 26ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean Arautegia, urriaren 1eko 39/2015 Legean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa eta urriaren 1eko 40/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa. Subsidiarioki, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.



Hamahirugarrena: Eskumeneko Jurisdikzioa.

Aldeen artean sor daitezkeen auziak ebazteko eskumena izango dute Administrazioarekiko Auzien Donostiako Epaitegiek, eta, era horretan bi aldeek onartzen dute epaitegi horien lurralde-eskumena.

Aurreko guztiarekiko adostasuna erakusteko, parte hartzen duten aldeek HITZARMEN hau sinatzen dute, bi aletan eta eragin bakarrerako, idazpuruan adierazten denlekuan eta egunean.

<p>HEZKUNTZA AZPISAILAREN ZINEGOTZI ORDEZKARIA</p>  <p>HEZKUNTZA BATZORDEA ERREENTERIA</p>	<p>ORERETA IKASTOLA KOOP. E-KO ZUZENDARIA</p> 
<p>Stua. / Fdo.: Garazi LOPEZ DE ETXEZARRETA AUZMENDI</p>	<p>Stua./Fdo.: Anartz MUXIKA ANDRES</p>